

**EUSKAL  
ANTZERKIA  
BIZKAIAN**

---

AUGUSTIN ZUBIKARAI



ARGITARAPENAK

Argitaratze urtea: 1991  
Argitarapena: Ez dago salgai.  
Argitaratzailea: ANTZERTI

Legezko Gordailu: SS-1115/91

## **EUSKAL ANTZERKIA BIZKAIAN.**

Agur ta erdi guztioi, bizkaitarren izenean.

Beste luzapen barik, gaian sartuko naz.

Gaia: Bizkai'ko Euskal antzerkia.

Noiztik ezagutzen ete da Bizkaia'n antzerkia?

Teófilo Guiard'en "Historia de la N.y L. Villa de Bilbao liburuan au esaten da Erdi Aroko goraberen artean: Bilbo'n zaletasun andia egoala ikuskizun pozgarri eta zaratatsuetarako. Gorpuztiko Anaidiko lagunak jai orren zortziurrenean orrelako jaiak egin al izateko eskabidea egiten ebela, edo ta Udal Batzarrak berak. Antzokia edo bear zan ol-sedela (tabladua) Santiago'ko plazatxoan edo ta Merkatuan jasoten zala.

1.566 urteko agiri baten esaten da: Gorpuztiko Kofradiko maiordomo zanak, beste jaien artean, Idazki Santuetan gaitutako antzerki bi egitea erabagitea eukala Gorpuzti jaietarako. Eta ortarako Udalak antzoki bat gertutea eskatzen ebala, jaia andikiro egiteko.

1.577 urteko Bilboko Udal Agiri baten irakurten da: "Markiña'tik Jaun Lope, maisu ordezkaria Bilbo'ra bere antzerki taldeagaz."

Antzerki jai orrek euskeraz ala erderaz egiten ete ziran? Ez dakigu. Bear ba da pastoral zarretako batzuk antzeztuko ziran.

1.603 urtean, Labayru'ren Historia de Bizkaia'n irakurri daitekenez, Bilbao'ko Udalak Obispaduko arduradun zan Adaro jaunari idatzi eutsan, Gorpuzti eguna etorrala eta antzerkiak egiteko asmoa egoala. Ori egin eikeenen artean ba egozala apaiz ikasle batzuk, baiña oneik Eleizaren baimena aurrez lortzea eskatzen eutsela.

1.712 urtean ba dakigu Durango'n antzokia gertuten zala orrelako agerkizunak egiteko.

Lekeitio'n, bertako "Kaxarranka" k ba dirudi aldi baten antzerki giroa euki ebala. Ango kondairan, 1.565 urtean igarten da orrelako zerbaít. Beintzat Kaxarranka ori Eleiz jantziz iruditzen zan eta 1.682 urtean Kalagorri'ko gotzaiñak galerazi eben.

1.799 urtean Barakaldo'ko parrokiaren Gurutzetik jeistea antziruditu egiten zan Ostiral santu arratsaldean, eta urte orretan galerazia izan zan.

Ontaz Julio Urkijozanak esaten daki: Eraspen etafede garrez asi zan eleiztar antzerkia, kale itxura artzen asi zan; fedeko ikuskizunei gangarkeri eta izkirimirizkoak ordeztu eutsen. Orrek nabarmenkeri eta izkanbilla sortzen zitun eta azken baten agintariak debekatu egin zituen.

Ez da esaten, len esan dogun lez, euskeraz ala erderaz egiten ziran. Guk uste dogu Lekeitio eta Markiñan eta Durangon beintzat euskeraz egingo zirala, bai Barakaldon be. Zegaitik orrela pentsatu ez, Urkijo berberakesaten badau: XV garren gizaldiaren azkenetan, Iruña'n Juan Labrit eta Foix'eko Katalin burestundu ziranean, euskal antzerki jai bat egon zala?

Ortaz gañera ba dakigu Lesaka'n, 1.566 urtean, Pasiño bat euskeraz antzeztu zala. Eta 1.602 urtean Ondarribian.

Nik Ondarroa'ko paperetan irakurri izan dot, aldi orretan, Gorpuzti jaiak alaitzeko, kanpotarrei dei egiteko oitura egoala.

Ziurra da Gorpuzti ospakizunak toki askotan XV garren gizaldiaren asieran ezagutu zirala; eleiz ospakizunak diñot. Antzezkizunak gizaldi orretako azken aldian, itxura baten.

Gaztelanian baiño Katalunia eta Aragoiko lurraldetan lenago.

Antxiñetatik ezagutzen da Kataluniarren "Cant de la Sibilla" deitura-koa. XIII garren gizaldian, Vich'eko katedralean "Bisbetó" (Obispo txikia) izenekoa agertzen asi ziran, bardin Lleida eta beste eleiz andietan. Gaur Montserrat'era joaten diranak, eukiten dabe jai ori ikusteko aukera.

Baiña igarri barik urruntzen noa. Urreratu nadin gure lurraldera.

Gure pastoralen artean 1.500 urteko bat aurkitu eban Herelle'k. Ala diño berak RIEV'en 1.962 urtean agertutako lan baten.

## **Iñauteriak eta Aratuzteak.**

Eleiz antzerkiak baztertu eta norbaitek galdetu leike: Iñauteriak, aratuzteak, ez al dira antzerki?

Toki batzutan zer esanik ez.

Markiña'n, esate baterako, Aratuste martitzenean, Antzar eguna deituten dautse an, "mozorro" eta "txantxoak" edo ta markiñarren eran esanda, "kokoxak" egiten dabena ez dago antzerki agerbide edo estampa batetik urrun.

Antzarretarako gertuera, antzarrei olioiz lepoa bete ta zaldi gaiñekoak eskuak saietan igortzita, rito bat betetan dabe. Eta gero txistulariak, lenengo "Andante" moduan, eta antzarrari burua moztuta gero, "allegretto" baten antzera, ori ikuskizun bat da. Eta edozelan egin ezin leikena.

Lekeitio'n estudiantina ta guzti egiten ebena, zer da? Eusebio Azkue'ren bertsuak gogoratu:

Aratuzte eguna dala-ta  
kalera gaur urten dogu,  
jendia pozez betetearren  
alegiña egingo dogu...

Eta orrela sei bertso, lenena euskeraz, bigarrena erdjerez, eta era orretan.

Ondarroa'n arrantzale mardulak urteten ekien. Ba euken " habanera" antzeko doiñuzko kantu bat, "Kuadrillan batzen gera" deiturakoa.

Ez da ederra izango aurtengo negua,  
pobrientzat ez da izan entero berua,  
mendebal, norteko aize, ipar pikarua,  
aretxek emdten dausku sarri endredua.

Ezer entzun al dozu lagun albokua?

Ba dala diñoie partidua;

makallau, sardiña zarra edo potxerrua.

gustora edando dogu gure sagardua.

Eta Gernika'n, ango dantzari marrotuak edo "marroak" egiten daben oillar jaia? Gizonak begiak estalduta, lurperatuta egoten dan oillarra billatu eziñik, nai ta orretarako txistularia euki oillarraren inguruan doiñuagaz oartu eragin nairik.

Eta Elorrio'ko artzak eta euren inguruan dantzatu, irriz bete eta jendea barre algaraka ipinteko zeregiña eukiten eben kokomarroak zer?

Ezin ukatu euren erara erri antzerki ziranik.

### **Agustin Basterretxea renpasiñoia.**

Len, Lesaka'n antzeztuten zan Pasio aitatu dogu. Ez ete zan euskal-dunentzat serbitzu berean agertu Basterretxea'ren "Jesu Cristo jaunaren pasiñoa" euskerazko bertsotah?

Agustin Basterretxea Lekeitio inguruko Ispazter'en jaio zan 1.700 urtean. Eta 61 urtedun il Orduña'n. Jesulaguna. 61 aapaldi (estrofatan) idatzi eban pasiñoa eta sinistu eziñiko arrakasta lortu eban Euskal-erri guztian. Kontuaneuki beraildagero, 1.777urtean argitaratuziralabertso oneik eta geroago bereala gipuzkerara aldatuta, Aita Kardaberaz'ek egindako aldaketaz, agertu zirala eta Aita Galdos'en esanetan berak euskera garbita eratuta 1.928 urtean kaleratu orduko, gitxienez ogei bidar atara bearra egon zala.

Pasiño ori oraindik be eleizetan abestuten da. Erdi antzeztu be egiten zala, esango neuke nik.

Ondarroa'n, esate baterako, eleiz "funtsiñoia" deitzen dana baiño ordu bete aurretikeleizan batzen dajendea Eguen eta Bariku santu egunetan arratsaldetan. Eleiz guztia illun ipinten da, leioak oialez estalduta. Eta Apostolu eta Kristo bizia iruditzen dabenak erdi erdian jezarten dira, eta Kristo asten da bertsoak abestuten eta erriak, errepika lez, "damu dot

Jauna" berbakin asten dan bertsoa osorik abestuz erantzun. Orrelaxe abadeen "funtsiñoia" asi arte. Origaitik Kristo iruditu beardauanari abots ona eskatuten jako. Kontuan eukita lengo gizaldian eta gurearen asieran be Kristo Gurutzetik beratzea geldi-geldi egiten zala, len Barakaldon aipatu dogun mimikaz, eta kontuan eukita Kristo bizi eta Apostoluen gain, beste iru Mariak, eta Beronika, eta Madalena, eta San Migel aingerua, eta Simon Zirenetarra, eta Jerusalem'go alabak eta erromatar gudariak "palazeruak" be an alkartzen dirala, orrelako gertaera bat erdi aroko eleiz-antzerkien ondoren dala pentsatzea ez da adarretatik ibiltea.

Ori Aste Santuan. Eta gernikarrak Gabonetako bederatziruurean abestuten dakiezan kalez kalezko "Marijesiak" antxiñako antzezkizun ondorenak diranik, ezin ukatu. Ala uste dau Arana Martija' k be. Luze joango giñake euretan erabilten dan ritoa azalduten.

### **Gabon Gaberako Ikuskizuna.(Acto para la Nochebuena).**

Aurrera jota, ibili ta ibilli, bizkaitar lez esan bearrekoa da, pasturalak kenduta, idatzitako antzerkirik zarrena, "GABON GABEKO IKUSKIZUNA" edo "Acto para la Nochebuena" dala.

Bere egillea, Pedro Ignacio Barrutia, aramaiotarra, geroago Arrasateko eskribadu izana. Naita arabar jaio eta Gipuzkoan bizi, izkuntzaz bizkaitarra.

Auñamendi liburuetan au irakurten da: " Es el autor de la primera muestra de arte dramático en euskera, anterior incluso al Borracho Burlado de 1.764."

Orra ba, Bizkaia'n, edo bizkaieraz beintzat, euskal antzertiko liburu-rik zarrenetakoena.

Euskal jator jatorra ete da lan au?

Barrutia eskribadua zan. Ziurretik etxetik kanpo ikasketak egiten Gaztelanian ibilia eta ikasia. Eta ango gaztelaniz asko irakurten oitua.

Idazle guztiak bakoitzaren taju eta erak eukiten dituez, eta era orreit-  
tirik euren tankera, kutsua igarten da.

Nik, eta onekin ez dautsa osperik eta merituhk batere kentzen Barrutia'ri, bere kutsua, bere taxua. Erdi Aroko gaztelar idazlehk ospe-tsuenetatik datorkiola esango neuke.

Barrutia bizi zan garaian Lope de Vega eta Calderon de la Barca'ren lanak zabal ebiltzan nun nai.

Edozein emakumeren esaera ei zan garai orretan gauza eder bar oartu ordurako:

Ori Loperena da.

Beraz modan egoan.

Barrutia'k darabillan gaia be giro-girokoa.

XV garren mendean Juan de la Encina'ren Autos de Navidad'etik asi eta gerotxuago "Eglogas al modo pastoril" Lucas Fernandez'enarekin, gai oh zabal ebillan garaiko idazleen artean. Eta beti kutsu bardiñaz, askotan "barregarri" bat tartean sartuta.

Ori Valentzitarren eskolan zearo sartu zan eta askoren eritzia zan Lope berberak ango eskolatik ikasi ebala.

Eta Lope'ren barregarria, berak Gracioso lez erabilten ekian pertsonaia, ortxe dago Barrutia'ren lanean. Eta izen berberagaz: "Gracioso" izen berberagaz, beste Txanbolin, Aritxa, Atsegin zoro, Mari Gabon eta abarren artean.

Lope'k sortu eban antzez-notiña, pertsonaia: tipo de "gracioso", figura de "donaire" berak esten eban lez. Igarten da Barrutia'k Lope'ren "El Arte Nuevo de hacer comedias" ezagutu ebala.

Baiña, barriro esan nai dot, orrekez dautsa meriturik kentzen Barrutia'ri.

### **Zalamea ko Alkatea, Bilbon.**

Ba zenkien aurten 110 urte , au da, 1.881 urtean, Bilboko Udalaren aginduz, Calderon de la Barca'ren "El Alcalde de Zalamea" euskeratu zala?



Euskeratzaillea Luis Iza eta Agirre, bilbotarra, eskola maisua. Itza Agirre au, esan dodan lez, bilbotarra zan, nai eta Azkue'k, bere papere-tan, ondarrutarra zala esan. Ama zan ondarrutarra.

Berreun ale argitaratu ziran. Onela deitzen da euskeraz: Zalamea'ko Alkatia, Komediya iru jutaldetan eta itz neurtuan, Pedro Calderon de la Barca'k egiña. Luis de Iza eta Agirrek Bizkaiko itzeran euskeratua.

Egia esteko euskerazko itzulpenak ez dau bertsoen neurririk ez rimarik zainduten.

Ori dala ta nire galdera au da: 1.811 urtean Bilbao'ko Udalak euskal antzerki bat iruditzeke ardua eukiteak, ez ete dau ziurtatzen aurrerako urtetako Gorpuzti antzezikizunak euskeraz egiñak izango ziran irizpidia?

## **Opera**

Geroago, Bizkaia'n, antzerti lan txikiak kenduta, opera kontua aurkitzen dogu garrantzizko. Eta onetan, tartetan euskera erabiliarren, ezin ukatu gaztelania nausiago zanik.

Euskal opera dala-ta, Juan Carlos Cortazar'ek lan polita itxi eban "La Opera Vasca" izenez. Bilbao'n operak artutako indarraren arrazoiak agertzen dituz. "Los excelentes compositores del momento, la existencia de una Sociedad Coral de Bilbao, que con su entusiasmo hizo posible la presentación de sus obras; pero sobre todo el fondo de arte popular en que tales obras de basaban, lo apropiado del euskera como soporte de la música lírica y la riqueza melódica de la música vasca, con una novedad rítmica sin rival, el zortziko."

Euskerari buruzdíño, melodiaren eroantzaille berebizikoadala, liriku antzertian beste izkuntza batek gainduten ez daben aña.

Arana Martija'k, bere aldetik diñonez, Cortazar'en liburu orretan euskal operaren egituraren barri ondo emoten daki, esanez ortarako gai bezela, nai ta ezko dala kondairako eta oituretako gaia, euskeraz azaldua, eta euskal musikalaria batek egiña, barruko bere sentimena egokiago agertu al izateko.

Orrelako operen artean, gure gizaldira etorrita, Arriaga-ren "Los Esclavos felices" gogoan euki bearrekoa da. Kontuan euki Arriaga'k 13 urtedun zala idatzi edo sortu ebalu opera ori.

Geroago Cleto Zabala dator, "La Hija del Pescador" egaz, Bizkaiko Aldundiaren laguntzaz.

Onetan kontuan eukiteko da, Arana Martijaren esanetan, Bilbao eta Durango izan zirala opera ia bakarrik sortuten zan tokiak. Durango'n Valentin Zubiaurre.euskal ikasleak osotutako taldeagaz batetik "Don Fernando El Emplazado" antzeztuten aurkituko dogu eta geroago "Ledia" au gaiez be euskalduna, Orreaga'ko gudaketan oiñarritua.

Abadiano'ko zan Nikolas Urien au lan biren egillea. Barzelonan emon ziran bere "Una notte nel deserto" (1.895) eta "La Atlántida" (1.908).

Baiña esukal operaren bizitasuna 1.894 urtean asten da. Eta bultzagille R.M. Azkue jauna.

Bera izan zan 1.895 urtean "Vizcaytik Bizkaira" egin eta agertu eban. Lekeitiarra zan, Azkue berberaren antzera, Buenaventura Zapirain. Onek "Txanton Piperri" agertu eban 1.899 urteko Errege egunean. Au Bilboko Aldundiak eta Donostiako Udalak lagunduta ibili zan.

1.909'tik 1.914 bitarteko bost urteak aberatsak izan ziran. Zazpi egillek egindako zortzi euskal opera estreñatu ziran denboraldi orretan. Ordurarte Donosti'k euki eban leentasuna, Bizkaiko urira aldatu zala Zapirain'eri esker, irakurten da.

Bitarte orretan letra egille on bat agertzen da: Alfredo Etxabe, "Iturribidekoa" lez ezaguna. Eta beragaz batera Jose Power. Onek erderatu eban "Maitena".

Gero "Lide ta Ixidor" agertu zan, opereta. Musika egillea: Santos Intxausti. Letra, Etxabe.

1.911 urtean "Orzubi Azkue'rena. Melodi geldiak, itunak. Goibelak esan eban kritikak.

1.914 urtean beste lan bat agertzen dau Azkue'k: URLO. Barzelona'ko orkesta ta guzti. Baiña ... kritikalaria esan eban lana ez zala entzun eta

ikustaldi baten erraz ulertzekoa.

1.920 urtean, Jose Mari Arroitauregi'ren itzekin, Guridi'ren AMA-YA.

Norbaitek esana da "Amaya" geratu dala euskal operaren agergarri berezizat.

Orra Bizkaia eta Bilbo'ko opera lanen gain gaiñeko irristada bat. Kontuan eukiteko da Bilbo'n antzoki ugari egon zirela operak eta bestelako lanak agertu al izateko eran: Ala Gayarre teatroa, Circo del Ensanche, Nuevo Teatro Arriaga, Novedades, Romea, Trueba, Coliseo Albia eta Campos Eliseos.

### **Antzerki soilla.**

Danok dakigu Marzelino Soroa izan zala Gipuzkoan Euskal antzerkiaren aitatzakoa. Bere lanak errezak ziran, baiña ziria sartu eban.

Eta Bizkaia'n?

Lotsatu egiten naz, gure gurasoen garaietan, euskal antzerki lez "Cuestión de Calabaza" erabilten zala entzun edo irakurten dodan ba-koitzean. Lotsatu benetan. Eta ori Unamuno'k eskiñi euskun.

Lengoetan ez dogu gogoragarri asko.

Azkue, bat. Beste abade bat: Robustiano Ortuzar. Pertsonaiak erabilten ez daki, baiña txalogarri da pertsonaietan sartzen dabena gatz lodia.

Sasoi berean Jemein Errazti tar Keperin, antzerki bat edo bestegaz, abertzaletasuna azi lez erabillala.

Eta besteak?

Ondorengoak itz egingo dabe. Gure lanik geienak izenetatik bakarrik ezagutzen doguz. Ori da zoritxarra.

Nik ba dakit, esateko, Eusebio Erkiaga batek ba daukala poesi miña antzerki bigun eta fiñak egiteko.

Nik ba dakit Ziarsolo batek euki izan dabela gatza ta erri ezaupidea teatro errikoi eta jatorra egiteko.

Nik ezagutu bear dot Aresti batek euki ebala giarra ta kaskarra teatro gordin eta kezkatu bat egiteko eta bide barrietan sartu nairik. Nai eta berak bizkaierarik erabili ez.

Baiña betoz barriak. Adoretu, zirikatu, beartu, estutu daiguzan lanera. Eta gain gaiñez, antzeztu daiguzan egin diranak. Antzeztu ezik, alperrik da idazleei eskatzea.

Orra, amaitzeko, bizkaitar idazle eta lanen zerrenda bat.

Ogetamar idazle. Danetakoak. Batzuk sortzailleak, besteak itzultzailleak.

Idazleak bizkaitarrak izanarren, batzuk gipuzkeraz idazten dabe.

Baiña lengora jota: Zelan esan gure tettoa zelako dan, idatzi dan erdirik ezagutzen ez ba dogu?

Ori da, zoritxarrez, gure kezka.

## BIZKAIKO ANTZERTIA

### Egilleak eta lanak

- Pedro Ignacio Barrutia** "Gabonetako Ikuskizuna"  
1682 - 1759 Argitaratzeak: "Euskal Herria", 1874  
Aramaio - Arrasate "Euskalzale", 1897  
"Auspoa", 1965  
Araba Aldundia, 1983  
Latxaga, 1983
- Iza eta Agirre, Luis** "Zalameako Alkatia"  
1837 - 1892 (Aren irudi ikusgarrienak Bizkaiko itzeran  
Bilbo euskeratuak 1881  
Santurtziko irakaslea (Bilbo'ko Udalak Calderón de la Barca'ren  
eun urtegarrena ospatuteko agindua).
- Azkue, Resurrección María** "Vizcaitik Bizkaira"  
1864 - 1951 "Sasi eskola" (Txikientzako)  
Lekeitio "Aitaren bildur" (Txikientzako)  
"Orzuri"  
"Urlo"
- Ortuzar, Robustiano** "Oroigarriak" (Bermeo'ko oiturak, ango  
euskaleran)  
(Torrontereun)  
(Ondo pentsata zauz)  
(Pitxar bete ur)  
(Txalupetxien)  
(Sorginkerizko epaia)  
(Doniane bezperako pozak)
- Evaristo Bustintza "Kirikiño"** "Anton Berakatz", 1914  
Mañaria "Txomin Arraio", 1912 (Jose Elizondo'ren  
1866 - 1929 komeria, bizkaieratuta)  
"Meza Barriya" (Abelino Barriola rena, biz  
kaieratuta)  
"Lelo" (Alfredo Etxabe'ren iru ekitalditakoa,  
euskeratuta)
- Cortés Navarro, Miguel** "Itxasondo", 1911 (Intxausti'ren musikaz)  
("Lope de Aulestia" Bilbo, 30 - X -1910  
"Txikia") "Estropadak"  
1938'n il zan "Idekuak alkarrekin"

**González Etxebarri, Luis** "Jai alai"  
"Aizkibel dar Bingen" (1915'ko Euskaltzale Bazkuna'ren sariket-  
Ubidea. - Argentina'n il tan saritua)  
1893

**Arrozpide Omagojeaskoa, Jon Bta** "Meza osteko jaia"  
Busturia, 1869 - 1952

**Garro, Bernardo. "Otxolua"** "Leia" Colombia'ko idazle batena, euske-  
ratua  
Mundaka, 1891 - 1960 "Maturiñe'ren kapoiak"  
Leon Leon azparnetarrena (1896 - 1962 )

**Oar-arteta, Joseba Andoni** "Sasi eskontza (1934)  
Axangiz, 1900 - 198

**Viar Nicolás** "Euzko Gogua", Jose Altuna'k euskeratua  
"Nerea", 1912 erderaz  
"Maite", 1913 erderaz

**Larrakoetxea, Bedita** Shakespeare'ren lanen euskaltzaillea.  
Zeanuri, 1894 Makbet (Macbeth), 1957 - Euzko Gogoa'n  
Lear Errege( King Lehar), 1958 - Euzko  
Gogoa'n  
Ekatxa...(Tempest), 1959-EuzkoGogoa'n  
Komediak A - 8 komedi. Gasteiz, 1974  
Komediak B- 6 komedi. Gasteiz, 1974  
Odol antzerkiak. 7 antzerki Gasteiz, 1976  
"Erromi ta Yuletxu"  
"Lear Errege"  
"Otel, Binixako mairua"  
"Atenai'ko Timon"  
"Macbeth"  
"Hamlet", Danemarka'ko erregesemena  
"Toril eta Kerside"  
Odol antzerkiak B. Gasteiz, 1976  
"Kinbelin"  
"Juli Kaisar"  
"Andoni ta Kelopatere"  
"Koriolan"  
"Tita Andornika"  
"Perikel, Tiro'ko errege"

Dramak. Gasteiz, 1977-10 antzerki(Nolako idazle? Trebe ta  
ernea noski. Ondo dakizki euskerak dituen barren- antzera ta  
korapilloak. Izango zituen nunbait bere buruko miñak Shakes-  
peare itzultzean, baiña bere trebetasunari esker, lerdengi az-  
piratu zizkigun aurrez-aurre izan zituen eragozpenak oro.

Aita Santi Onaindia'k

- Agirre tar Txomin**      Campion'en "Larraldeko Lorea" euskeratu.  
Ondarroa, 1864      (Gipuzkeraz)  
Zumaya, 1920
- Ametzaga Bingen**      "Hamlet"  
Algorta, 1901 - 1959      "Macbeth"  
"Julio César"      Shakespeare'renak)  
"Rubaiat" (O Kayyan'ena.Persitarra)
- Arriandiaga, Manuel**      Emiliano Arriaga'ren LEKOBIDE euskera-  
Elantxobe, 1876 - 1947      tu eban
- Jemein Lanbarri Zeferino** "Oleslari Bijak", 1915. - Bere emazte Kar-  
Bilbo, 1885 - 1965      mele Errazti'gaz batera egiña
- Garitaonaindia tar Bitor**      Gipuzkeraz idazten eban  
Zaldibar, 1876 - 1929      "Iziartxo", 1918. Bi ekitalditan  
"Aitona ta billoba", 1921. Bi ekitalditan  
"Ongillearen sariya", 1922. Bi ekitalditan.
- Etxeita Jose Manuel**      "Urikoa" Anton Trueba'ren lana euskeratua.  
Mundaka, 1842- 1915
- Ziarsolo Gironeila, Manuel** "Eguberri aizeak" (Gabonetako Ikuskizu-  
Bilbo, 1902      na, Barrutia'ren lanetik sortua)  
"Agur Donibane"  
"Goiz otoia"  
"Sorgiñak Etxaburun"  
"Paris'en gogo txarrez"  
"Eztegu ta erdi"  
"Bermioko portuna"  
"Katalin Errotako"  
"Jai arratsalde baten"  
"Afal orduan"  
"Artzaiñaren ametsa"  
"Atsoa gaztetu bear dogu"  
"Saku jantzia"  
"Gogozar berbizkunde goizian"  
"Gabon gabonetan"  
"Eguberri aizeak" Itz neurtuz  
(Lan oneitako geienak irudi antzekoakdira,  
xinpartak" taldearentzat gertuak.)

**Arenaza Josu** "Eguen zuri". Labaien'en "Ostegun gizona" bikaieraz  
Bilbao, 1913

**Alonso Ariño, Santos** "Errugabea" ( Iru ekitalditan, Argitaratu barik)  
Elorrio, 1915

**Erklaga, Eusebio**

Lekeitio 1912

"Antzerki jaiari izan naiz".Bakarrizketa, 1934, "Antzerti"  
"Askatasun bidean" estampa antzekoa)."Euzkadi"n agertua.  
"Sinisgogorra", 1951. Donosti'n saritua. Ekitaldi bakarrekoa,  
gero irutara aldatua.  
"Pake eguna" (Gabon girokoa), 1956. Ekitaldi bakarra.  
"Kanpaien atsekabez", 1959. Bedoña'n saritua. Lau unetan.  
"Oinazez" Iru ekitalditan.Patxi Bengoa'ren musikaz  
"Alperrontzi", 1959. Txinpartak'entzat egiña. Laburra.  
"Gau batean". 3 ekitaldi labur. Gizarte girokoa., 1970  
"Gora Arratia".Bonifacio ..

**Ibiñagabeitia, Andima** "Abere indarra".- Jacinto Benabente'ren "La  
Elantxobe, 1907 Fuerza bruta"

**Lasuen Balendin** "Garbiñe" (Argitaratu barik). Ba dago beste  
Zaldibar 1924 "Garbiñe" bat, Catalina Eleizegi'rena

**Andrinua, Martzel** "Zoro etxean"  
Markina, 1930 "Satanas sotanaz"  
"Au dok umoria"  
"Batek ba daki". Danak jostirudi txikiak

**Aresti Gabriel** "Mugaldeko Herrian Egiñiko tobera", 1961  
Bilbo, 1933 "Etxe aberatseko seme galdua" eta "Maria Madale  
» 1975 naren seme santua, 1962  
"Eta gure eriotzako orduan", 1964  
"Beste mundukoak eta zoro bat", 1964  
"Justizia txistulari", 1967  
Eta euskeratuta:"Xistima zoriontsu bat", Bertol  
Brech'ena.

**Sota, Manu** "Negarrez igaro zan atsoa"(Altuna tar Joseba'k euz  
Ondarreta, 1897 keratua)  
Biarritz'en il "Iru gudari"  
"Libe" Arana Goiri'k asi eta Sota'k amaitu  
"Buruzagiak". Atal bakarrekoa. (Altuna'k euskeratua).  
"Gosemin eta azken ordua". Atal bakarrekoa  
"Urretxindorra"  
"Itxaro Ixarra"



"Siaska onduan" >  
"Estropadak"  
"Oztin. Altuna'k euskeratua  
"Bihotz apala". Paul Giltsou'k euskeratua  
"Antzerti"k au idatzi zan beragaitik: "Cocteaua euskalduna  
deitu genezakiok Sota Aburto idazleari. Antzerkirako doai  
berezia du eta euskeraz idazten asi danezkerok, ez dezala  
aztu gure Antzertitxoa.

### **Zubikarai Bedialauneta, Augustin**

Ondarroa, 1914

"Aberriagaz bizi". Umeentzat.  
"Euzkadi"n argitaratua  
"Illobearen indarra". Andientzat. "Euzkadi"n argitaratua  
"Itxas lapurrak". Andientzat. "Euzkadi"n argitaratua  
"Itxas ertzeko itsu mutilla"  
"Itxasora". Biarritz'en saritua, 1945  
"Umetako kezak" (Umeentzako)  
"Aingira kumak" (Umeentzako)  
"Ikas- Mikas" (Umeentzako)  
"Seaskainguruan"(Gabonetako irudiak), 1956'en Donostia'n  
saritua ("Egan" en argitaratua)  
"Jaunaren Bideetan" ("Egan"en argitaratua)  
"Iru alaba", 1963'ko Toribio Alzaga saria. "Euskera" n agertua  
"Kresaletan" Gregorio Solabarrieta'ren musikaz  
"Mariñelak" Jose Maria Altuna'ren musikaz  
"Gizon on eta andre erre" 1967, Toribio Alzaga saria  
"Bizi garratza" 1967, "Gipuzkoa" sarietan aipamena  
"Lurrunpean" 1968, "Gipuzkoa" saria. "Egan" en argitaratua'  
"Errekonduan" 1969, "Gipuzkoa" saria  
"Mendu zarrak", 1969, Toribio Alzaga saria  
("Au eta Bizi Garratza" Irakur Sai liburu sortan argitaratu ziran  
biak liburu baten")  
"Loiolako Semia"  
" Ni naz Kapitan pilotu"  
"H. Opokoa H"  
"Kirritirrika"  
"Gernika Aritz aurean"  
"Zurrukutun"  
"Zimur Zimelak"  
"Saliña Saliña"  
"Atako bandan"  
Orrez gaiñera antzerkirako egokitu: "Atxuriko Millagrua,  
Kirikiño'rena.  
Kirikiño'ren omen egunerako "Urruzuno'ren umorez". Urruzu-

noren omenaldirako.

"Mendi eta Itxaso". 1983 'ko Markiña'ko Lore Jokoetan lenen saria. Bizkai'ko Foru Aldundiaren saria

"Arteako itsua"

"Irugarren adiñean"

"Gorri ta zuri"

"Arrain sunda"

"Orbel eta orri"

"Santa Klara egunean"

"Urandietan"

<b>Xabier Gereño</b> 1924, Bilbo	"Euskal ikastola", "Egan" en agertua "7 Teatro lan", 1979'en argitaratua: "Dentistaren konsultan" "Ipurdia erakutsi nahi ez" "Hotel bateko gelan" "Aspirinarik ez" "Don Afrodasio legegizon famatua" "Nobi bat behar dugu", 3 atal "Nor da errudun", 3 atal "8 teatro lan", 1982: "Ez da seguru" "Organizazioa" "Tiburtzio Sarjentua" "Ezkondu bai, baiña norekin" "Pitrimitrof'en etxea" "Kalifornia-ko urre meatzetan" "Restaurantean" "Mozkortia Komisaldegian"
<b>Etxabe, Alfredo</b> Bilbotarra. 1898'n asi zan antzerkia idazten	"El de Iturrigorri" "La Horda" "Lenago il", Aureliano Valle'ren musikaz "La Alianza republicana" "Bide Onera", 3 atal. Aureliano Valle'ren musikaz "Maitena". Decrept'ek egin eta Colin'en musika- duna "Lide ta Ixidor". Insausti'ren musikaz "Mirentxu". Guridi'ren musikaz "Peru Gizon". Atal bitan. (Beren onena) "Lelo", drama. Iru ekitaldi. "Matilde", drama. Iru ekitaldi "Pedro Mari", melodrama, 4 ekitalditan. Arturo Campion'en eleberri batetik egiña.

**EL ALCALDE DE ZALAMEA**

Comedia en tres jornadas y en verso por D. Pedro Calderón de la Barca.

Sus principales escenas traducidas al dialecto bizcaino del Euskera por Luis de Iza y Aguirre.

De este libro se imprimieron doscientos cuerpos numerados desde 1 a 200, a costa de la Noble, Invicta, y Benemérita Villa de Bilbao.

N<sup>o</sup> 115.

**ZALAMEAKO ALKATIA**

Komediya iru justaldetan eta itz néurtuan Pedro Kalderon de la Bar-kak egiña.

Aren irudi ikusgarriyenak Bizkaiko itzeran euskeratuak. Bilbon

Juan E. Delmasen moldiztegian

MDCCCLXXXI ( 1881 )

**Advertencia preliminar**

Habiendo acordado el Excmo. Ayuntamiento de Bilbao la versión y publicación en lengua euskara de las principales escenas de "El Alcalde de Zalamea, como uno de los medios de honrar la memoria de D. Pedro Calderón de la Barca en el aniversario de la muerte de aquel insigne poeta, me dispensó la honra de confiarme aquella versión.

Como se trataba de conmemorar por mi pueblo natal la esclarecida memoria del insigne dramaturgo español en la antiquísima habla de los primeros pobladores de España, era caso de conciencia para los que cultivamos la literatura euskara darla a conocer en formas distintas a nuestros hermanos, que casi la desconocen, y así es que, como bilbaino y euskarista, aunque de los más humildes, me he creído en el deber de aceptar con gusto tan honroso cometido.

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**